

ANTZERKIA. Anjel Alkainek gidatzen duen talde berriak euskaraz sortutako lanak aurkezten jarraitzeko asmoa du

Antzerkirako bidea 'kutxidatzen'

Gorringo taldea Joxean Sagastizabalen 'Kutxidazu bidea, Ixabel' liburuan oinarrituriko antzerki lana prestatzen ari da

Ainhoa Oiarzabal | DONOSTIA

Ezohiko fenomenoa izan da euskal literaturan Joxean Sagastizabalen *Kutxidazu bidea, Ixabel* liburua. Asko saldu da, gehiago irakurri, eta orain, antzerki obra bilakatuko da. Juan Martinek, Ixabelek, bikiek, Koro irakasleak... paperean ez ezik, oholtza gainean hartuko dute bizia. Hezur-haragizko bilakatuko dira. Gorringo antzerki taldearen lehenengo obran.

«Zazpi urte haurrentzat emandakia prestatzen aritu eta gero erabaki dugu helduentzako antzerkia egitea», esan du Anjel Alkainek, Hankagorri antzerki taldetik eratorritako Gorringo taldearen buruak. Orain arte eginiko bideari jarraituko diote: «Umorea eta euskara dira gure ezaugarriak. Euskaraz barrik aritzeko asmoa dugu au-

rrerantzean ere». Eta hori, euskaraz sortutako testuak taularatu dituztelako dio.

Horregatik aukeratu dute Joxean Sagastizabalen lan arrakastatsua. Halaber, «arrazoi geografikoak» aipatu dizkigu Alkainek: «Oso gertukoa sentitzen genuen istorioa. Hernialden, Alkizan, Tolosaldean jazozen baita istorioa», eta inguruan bizi baitira taldekideak. Anjel Alkainekin batera, Iñaki Agirrezabal, Ixabel Agirresarobe, Egoitz Lasa, Ainere Tolosa eta Mikel Sarriegi izango dira aktoreak. Gehienek, pertsonaia bat baino gehiago antzeztuko dute. Anartz Zuazuaren gidaritzapean ari dira entseatzeko.

Bi mundu aurrez aurre

Antzerki lanak islatzen dituen bi mundu diferenteetako pertsonaia gorpuztuko dituzte ak-



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

LEHEN ENTSEGUAK. Anjel Alkain, Egoitz Lasa, Ainere Tolosa, Ixabel Agirresarobe, Iñaki Agirrezabal eta Mikel Sarriegi aktoreak Anartz Zuazua zuzendariaren —bizkarra ematen— gidaritzapean entseatzeko.

toreek: «Euskaldun zaharraren eta euskaldun berriaren bi mundu horiek hainbat erregistro erabiltzeko aukera ematen digute: herri giroa, euskaltegi giroa, hiriko eta baserriko giroaren arteko nahasketa...». Finean, euskaldunok geure buruaz barre egiteko bidea ematen die. «Izan ere, euskaldunok geure buruaz barre egiteko kriston premia dugu. Mundu guztiak bezala, noski».

ETBko *Sorginen laratza* saioan aktorea izanik, herri askota-

tik eskatu diote Alkaini eta berak gidatzen duen taldeari telebista programa horretan lan-tzen duen umorea eskaintzeko. «Baina guk ez dugu hori errepikatu nahi». Eta alternatiba bat proposatzen diote eskakizun horri: «Umorea bai, baina gidoi on batean oinarrituriko umorea landu nahi dugu. Alegia, ez dugu telebistatik egin nahi antzerkian». Eta normalean, euskal literaturako obra batean oinarrituriko dira hori egiteko.

Besteak beste, euskaraz oso

dramaturgia gutxi egiten delako erabaki dute euskal literaturara oholtzara eramatea. *Kutxidazu bidea, Ixabel*-en kasuan, Nagore Aranbururi eskatu diote antzerkirako egokitzapena egiteko. «Nagorek euskaraz pentsatzen du, eta aktorea izan arren, gustura heldu dio dramaturgia lanari».

Halaxe aitortu digu Aranburuk berak. «Goxoki bat» izan omen da beretzat dramaturgia idaztea. Hasieran, beldurra ere sentitu zuen, ordea: «Liburu hau jende askok irakurri baitu, eta ongi egin behar da».

«Hainbeste gustatu zitzaidan liburua, saiatu naizela ahal zen neurrian liburuko kontakizuna bere horretan uzten», esan du bere egokitzapenari buruz ari dela. Gehien gustatu zaizkion pasarteak aukeratu ditu, baita elkarrizketak ere. «Hala ere, antzerkirako elkarrizketa laburregiak dira liburukoak; luzatu egiten dituzte».

Harreman estua izan dute Nagore Aranburuk eta Joxean Sagastizabalek liburua antzerkirako testu bihurtzeko prozesuan. Ondorioz, idazleak liburuan sartu ez zituen baina buruan irudikatu zituen beste zenbait eszena oholtzara gainean aurkeztuko dituzte. «Hala ere, ez dago berrikuntza handiegirik; oso markatua da liburua. Giroa eta pertsonaia oso ongi definituak daude». Pertsonaiaren bat gorabehera, liburuko guztiak ageriko dira antzerki lanean.

Herrietako frontoietan ere bai

Tafallan estreinatuko dute, martxoaren 15ean. Pare bat egun lehenago, 13an alegia, en-

JOXEAN SAGASTIZABAL IDAZLEA

«Geure buruari barre egiteko idatzi nuen, lortu dudalakoan nago»

A.O. | DONOSTIA

Kutxidazu bidea, Ixabel (Alberdania, 1994) liburua soilik idatzi duela uste dute askok. «Zure liburua» esaten didate *Kutxidazu*-z ari direnean. Besterik idatzi ez banu bezala!», aitortu digu idazleak.

Haren arrakastaren itzalean gelditu dira *Zorotariko euskal hiztegia* (Alberdania, 1996) eta *Gerturik daukagu odola* (Pamiela, 1999). Baita aurretik idatzitako beste lau liburuak ere. Hala ere, oso pozik dago *Kutxidazu* egiten ari den bide luzearekin.

■ **Zer izan da zuretzat *Kutxidazu bidea, Ixabel* liburua antzerkira eramateko saio hau?**

Gabonetako oparia izan da.

Gabonetan deitu zidan Alkainek asmo horren berri emateko. Niretzat, beste opari bat izan da. Oso ilusionaturik nago.

Duela urte batzuk sortu zen liburua oinarri hartuta antzerkia egiteko asmoa, baina bertan behera gelditu zen. Oraingo saiakera ongi irtengo dela ziur naiz. Esku onetan dago.

■ **Nagore Aranburuk egin du dramaturgia. Gertutik jarraitu duzu haren lana, ezta?**

Berea da egokitzapena, baina badago nire parte-hartzea. Jakina, egin duen lan osoari nire oniritzia eman diot.

■ **Obabakoak-ekin batera, euskarazko literaturan gehien saldu den liburuetako bat da. Zein da arrakasta horren gakoa?**

Guztira, 60.000 ale saldu dira; *beste seller* bat. Nire helburua gure buruari barre egitea zen. Eta lortu dudalakoan nago. Ziur nago jendeak barre egiten duela. Euskal Herrian gauza oso *heavy*-ak gertatzen dira, eta denok dugu barre egiteko beharra.

■ **Iban Zaldia idazleak zure liburu hau jartzen du literatura arina baina kalitatezkoa egiteko adibide gisa. Ados zaude?**

Ez du *Kutxidazu*-gatik bakarrik esaten; nire obra guztiagatik esaten du hori. Ibanek esaten du euskal kontsumo literatur onaren oinarriak jarri ditudala. Eta beno, bai, baliteke.

Hala ere, hori guztia esan arren, nik ez dut goi asmo handirik. Nik badakit non



EGUNKARIA

nagoen. Baina goi asmo handirik gabe gauzak egin daitezke. Ez dut literaturako Nobel saria irabaziko, baina ez da nire asmoa.

■ **Ildo horretatik, ari al zara beste libururen bat idazten?**

Eleberri bat daukat eskuartean. Baina oso denbora gutxi dut idazteko. Oraingo istorioa potoloagoa da. Liburu konplexuagoa, finean.